



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2023-ko abuztua

ZOSTER HERPESAREN AURKAKO TXERTAKETA: XEDE-POPULAZIOA HANDITU DA

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

MHRAREN SEGURTASUN-OHARRA: AIEE-AK HAURDUNALDIAN

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN
MEDIKAMENTUETAN

Dulaglutida

Formula-magistralak: karbamazepina jarabea, emulsio fotobabeslea

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

- Aztertuko den medikamentu berria:
Dapagliflozina helduetan, giltzurrun-gaixotasun kronikoa tratatzeko
Beriziguata BG-EFm duten pazienteen tratamendurako
- SEFAPen infografia: Ba al dakizu eguzkia eta medikamentuak ez direla beti bateragarriak?
- Loaren alterazioa pediatrian: melatonina erabiltzeko gomendioak

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

HORNIDURA-GABEZIAK ETA –BERREZARPENAK

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

1

ZOSTER HERPESAREN AURKAKO TXERTAKETA: XEDE-POPULAZIOA HANDITU DA

Osasun Publikoko Zuzendaritzak informazio-ohar bat argitaratu du Herpes Zosterren txertaketari buruzko informazioa eguneratzeko. Aldaketa nagusiak hauek dira:

- Txertatu beharreko kohorteak handitu egingo dira, dosiak eskuragarri daudelako. Hortaz, 65 urteko pertsonak (1958an jaioakoen kohortea) eta 76 eta 80 urte artekoak (1947tik 1943ra bitartean jaioakoen kohorteak, biak barne) ere txertatuko dira.
- Arrisku-talde berri bat sartu da: aurretik Herpes Zosterren bi episodio edo gehiago izan dituzten pertsonak. Ikusi [hemen](#) informazio-ohar osoa.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2

MHRAREN SEGURTASUN-OHARRA: AIEE-AK HAURDUNALDIAN

Medikamentuak arautzen dituen agentzia britainiarrak (MHRA) ohar bat argitaratu du, horren bidez gogorarazteko haurdunaldiaren azken hiruhilekoan kontraindikaturako dagoela AIEE sistemikoak (ahotik hartzekoak eta injektagarriak) erabiltzea, hala nola ibuprofenoa, naproxenoa eta diklofenakoa.

Haurdunaldiko 20. astetik aurrera AIEEak luzaroan erabiltzeak zerikusia izan dezake oligohidramnioak eta fetuaren giltzurrun-disfuntzioa izateko arriskua handitzearekin. Arrisku horiez gain, fase goiztiar horretan identifikatu izan dira arteria-hodietako uzkurdura kasuak ere.

Beharrezkoa baldin bada AIEE sistemikoak erabiltzea haurdunaldiko 20. astetik aurrera, dosirik baxuena preskribatu behar da, ahalik eta denbora laburrenean, eta baloratu behar da jaioberriari kontrol osagarria egitea hainbat egunetan baino gehiagotan erabiltzen bada.

Ikusi MHRAREN informazio-oharra [hemen](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3

HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN

Hauek dira **2023ko uztaleko berrikuntzak**:

Julio 2023		
	Dulaglutida	Trulicity 0,75 mg eta 1,5 mg soluzio injektagarria luma aurrekargatuan. EZ DA FINANTZAKETAN sartzen indikazioa honako hauei zabaltzea: 10 urte baino gehiagoko pazienteentzako tratamendua, behar bezala kontrolatu gabeko 2 motako DM dutenak, dietari eta ariketari lotuta - monoterapien, metformina egokitzeak jotzen ez bada intolerantzia edo kontraindikazioengatik, diabetesa tratatzeko beste medikamentu batzuei gehituta. - diabetesa tratatzeko beste medikamentu batzuei gehituta.

 Indikazioa, finantzaketa edo preskripzio- eta dispensazio-baldintzak murriztea

2020ko urtarritik aurrerako berritasunak jasotzen dituen [dokumenturako](#) esteka.

Berritasunak formulazio magistralean (FM):

Karbamazepina	Finantzaturiko formula magistral hau sartu da e-rezetan: karbamazepina 20mg/ml jarabea 250 ml 1 flasko (CN 140557)
Emulsio fotobabeslea	Emulsio babeslearen formularen konposizioa aldatu da, haren osagaietako bat, Parsol MCX, jada ez delako merkaturatzen eta horren ordez Neo-Heliopan E1000 jarri delako, kontzentrazio berean (% 5). Presbiden ohar hau sartu da, preskribatzaileei aldaketaren berri emateko:

	Produktu edo DOE oharrak ⚠️ Produktu edo DOE oharrak ⚠️ EMULTSIO FOTOBABESLEAK konposizioa aldatu du: Parsol MCX merkaturatzeari utzi dio eta Neo-Heliopan E1000-k ordezkatu du. Finantzaketa-baldintza berak mantentzen dira: ikuskapen-bisatua lupus eritematoso kasuetarako. Egungo izena: Emultsio fotobabeslea, 100 g, 1 ontzi (tioveil % 15, parsol 1789 % 3, Neo-Heliopan E1000 % 5) (CN 140532)
--	---

Errezeta elektronikoan preskribatu daitezkeen formula magistralen zerrenda osoa sailaren esteka honetan kontsulta daiteke: [formula-magistralak_202307.pdf \(euskadi.eus\)](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4 ARGITALPEN INTERESGARRIAK

Aztertuko den medikamentu berria

[Webgunean](#) "Aztertuko den medikamentu berria" izeneko bi fitxa berri daude ikusgai, Euskadiko Medikamentu Berrien Ebaluazio Batzordeak eginak.

1. Dapagliflozina helduetan, giltzurrun-gaixotasun kronikoa tratatzeko.

Dokumentuen estekak:

- [Fitxa](#)
- [Ebaluazio-txostena](#)
- [Publizitatearen kritika](#)


2. Beriziguata BG-EFm duten pazienteen tratamendurako, deskonpentsazioagatik ospitalizatu berri direnentzat.

Dokumentuen estekak:

- [Fitxa](#)
- [Ebaluazio-txostena](#)
- [Publizitatearen kritika](#)

SEFAPen infografia berria: Ba al dakizu eguzkia eta medikamentuak ez direla beti bateragarriak?

Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Espainiako Sozietateak (SEFAP) eguzkiari eta medikamentuei buruzko infografia berri bat argitaratu du, pazienteei eta herritarrei zuzenduta. Bertan azaltzen da labur-labur zein ondorio duen eguzki-esposizioak, zenbait medikamentu hartzen ditugunean.



Infografía esteka hauetan dago eskuragarri:

- [Pdf formatua](#)
- [Aurkezpen interaktiboaren formatua](#)

SEFAPen infografía hau eta beste batzuk [web-orrian](#) zuzenean ikus daitezke.

Gogoan izan duela gutxi INFAC buletin bat argitaratu dela ["Beroa, osasuna eta sendagaiak"](#) izenburuarekin.

Loaren alterazioa pediatrian: melatonina erabiltzeko gomendioak

Azken urteotan, melatoninaren erabilera pediatrikoa orokortu da. Hori dela-eta, Espainiako Pediatría Elkarteko Loa eta Kronobiología taldeak [dokumentu](#) bat argitaratu du gomendioak emateko, Pediatría loaren alterazioetarako melatonina nola erabili jakiteko.

Hona hemen dokumentu horien estekak:

- [Gomendioak biltzen dituen liburuxka](#)
- [Infografía](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5 HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:


- **Atamax** 25, 40, 60 eta 80 mg kapsulak: atomoxetina. Farmazia-bulegoetan lortu ezin duten pazienteek atzerriko medikamentu gisa eska dezakete.

- **Amchafibrin® 500 mg konp.:** azido tranexamikoa. **Amchafibrin® anpoilak** erabil daitezke horren orde, edan baitaitezke eta.
- **Iso-Lacer® 5 mg konp.:** isosorbida dinitratoa.
- **Rimstar® 60 konp.:** errifanpizina 150 mg / isoniazida 75 mg / pirazinamida 400 mg / etanbutol 275 mg. Printzipio aktiboak bereizita preskribatzea da alternatiba. Aurreikuspenen arabera, abuztuaren 21eko astetik aurrera eskatu ahal izango da atzerriko medikazio gisa.
- **Catapresan® 0,150 mg konp.:** klonidina.
- **Edunix® 4mg askapen luzeko konp.:** hidromorfona. Atzerriko medikamentu gisa eska daiteke.
- **Gabapentina 100 mg kapsula.** Atzerriko medikamentu gisa eska daiteke.

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- **Requip® 1 eta 2 mg 84 konp.:** erropirinola.
- **Duoplatin® 75 mg/100 mg, 28 konp.:** AAS/klopidogrela.
- **Fluticasona Aldo Union® susp. nebulizaziorako 1 mg/ml 20 anpoila 2 ml**
- **Clotrimazol Canesmed® 10 mg/g krema EFG, 1 hodi 30 g.**
- **Vagirux® 10 mcg konp. baginalak:** estradiola.
- **Flagyl® 125 mg/5ml ahotiko suspentsioa 120 ml-ko 1 flasko:** metronidazola.
- **Fucidine® 250 mg 10 konp.:** az. fusidikoa.
- **Trankimazin Retard® 3 mg konp.:** alprazolama.
- **Largactil® 40 mg/ml ahotiko tantak, 30 ml-ko flaskoa:** klorpromazina.
- **Depo-Progevera® injektagarria 1 biala:** medroxiprogesterona.
- **Buprex® 0,2 mg 20 konp. mihipekoak:** buprenorfina.
- **Dumirox® eta Fluboxamina EFG Sandoz® 50 mg konp.**
- **Halcion® 0,125 mg 30 konp.:** triazolama.
- **Azitromicina Kern Pharma® 200 mg/5 ml 15 ml eta 30 ml-ko flaskoa.**
- **Dalacin® 100 mg 3 obulu:** klindamizina.
- **Sinemet PLUS® 25 mg/100 mg 100 konp.:** lebodopa/karbidopa

Presbiden, «Hornikuntzarik eza» botoia dago eskuragarri, «Preskripzioen kontsulta» pantailaren beheko aldean, medikamentuen hornikuntzarik ezari buruzko informazio erabilgarriarekin.



[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia
ARABako ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus
Farmazialariak: Javier Martínez, Inés San José
Tfno.: 945 006752 / 945 006631



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da